

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MAÑUETAKO UDALA

**Heritarrek Parte Hartzeko Programa, Mañuetako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualarena. EU-4 egikaritze unitateari eta San Kristobal kaleko tarte batean eraikinaren lerrokadura eta mugimendu eremua arautzeari buruzkoa da aldaketa puntuala**

Alkatearen 2020ko ekainaren 8ko dekretu baten bidez, hasi zen izapidetzen Mañuetako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa, EU-4 egikaritze unitateari eta San Kristobal kaleko tarte batean eraikinaren lerrokadura eta mugimendu eremua arautzeari buruzkoa, eta erabakiaren hirugarren puntuan agindu zen ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratu behar zela heritarrek parte hartzeko programaren laburpena.

#### Heritarrek parte hartzeko programa

##### 1. Agiri honen xedea

Heritarrek parte hartzeko programa hau da Mañuetako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketarena, zeina baita EU-4 egikaritze unitateari eta San Kristobal kaleko tarte batean eraikinaren lerrokadura eta mugimendu eremua arautzeari buruzkoa.

##### 2. Proposatutako aldaketaren edukien laburpena

Proposatutako aldaketaren bidez honako hauek egin nahi dira:

- Aldatzea EU-4 egikaritze unitatearen kategorizazioa, OR-5 ordenantzaren barruan sartzeko.
- Arutzea eraikinaren lerrokadura eta mugimendu eremua San Kristobal kaleko tarte batean, kalearen errealitatera egokitzeko.

##### 3. Heritarrek parte hartzeko gida

Heritarrek parte hartzeko programak mugarri hauek izango ditu:

- ALHAOn eta udalaren web atarian argitaratuko da.
  - Jendaurreko ekitaldian aurkeztuko da, eta hauek azalduko dira: aldaketaren irismena eta edukia, nola kontsulta daitekeen, bilera partikularretarako aurretiko hitzordua eskatzeko aukera eta alegazioak nola egin, bai eta haiek aurkezteko tokiak eta epeak ere. Galderak egiteko aukera ere izango da.
- Ekitaldirako deialdia udalaren iragarki taula ofizialean eta webgunean egingo da.
- Espedientea bertatik bertara ikusteko aukera izango dute hala nahi dutenek, jendaurrean egongo den bitartean.
- Agiriari egingo zaizkion alegazioak udalera bidali behar dira, idatziz edo telematikoki, hura jendaurrean dagoen bitartean. Udalak haiei buruzko erabakia hartuko du, espedientea izapidetzeari berriz ekin aurretik.

Proposatutako aldaketak ez dakarrenez gorabehera handirik eta kontzeptuak sinpleak direnez, ez da beharrezkotzat jo dibulgazio materialik prestatzerik hura errazago zabaldu eta ulertzeko.

Mañueta, 2020ko ekainaren 8a

*Alkatea*

**FRANCISCO JAVIER GARCIA PEREZ DE LOZA**